


# ALTXA, HILDAKOAK

Fred Vargas
Itzultzailea: Beñat Irastorza Ugalde

**2024**
**URTARRILA**

Ager al daiteke pago bat egun batetik bestera, gau bakarrean, inork hura landatu gabe? Halaxe gertatu da Sophia Siméonidis kantari ospetsuaren loretegian, eta ordutik ez du lorik egiten. Egun batzuetara desagertu egiten da Sophia, gainera, nahiz eta bere senarrak kezkarik agertu ez. Asperdurak, ikertzaile senak eta gertaera latz batzuek akuilaturik, alboko etxe kalamastrako hiru bizilagun historialariek, Vandoosler polizia ustel ohiak lagundurik, pagoaren sustraiak arakatuko dituzte, urteek gorrotoz eta jelosiaz gizenduak.

## BILDUMA HONETAN
















**ELEBERRI BELTZA**



| | |
|---|---|
| ISBN: | **978-84-19319-86-9** |
| ORRIALDEAK: | **376** |
| FORMATUA: | **12 x 19** |
| PREZIOA: | **19,00 €** |



- **Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko VI. (H)ilbeltza bekaren irabazlea da Beñat Irastorzak itzulitako lagina.**
- **«Les Évangélistes» [Ebanjelariak] serie arrakastatsuaren lehen liburua da hau, 1995ekoa, idazlearen laugarrena eta kritikaren Mystère saria jaso zuena.**
- **Fred Vargas eleberri beltzen idazle ezagunenetakoa da gaur egun Frantzian, bereziki Adamsberg komisarioaren serieagatik, eta telebistara eta zinemara eraman dituzte bere zenbait lan.**



**FRED VARGAS**, Paris, 1957
Frédérique Audoin-Rouzeau, Fred Vargas luma izenez, historialaria eta eleberrigilea da. Historia ikasketak egin zituen eta arkeozoologian espezializatu zen, hau da, inguru arkeologikoetan agertzen diren animalien aztarnen ikerketan. Horri loturik, 2003an Izurri Beltzari buruzko saiakera zientifikoa idatzi zuen, *Les Chemins de la peste, le rat, la puce et l'homme*. Bere formakuntzaz aritzean, etxekoak ditu maiz ahotan: aita Philippe Audoin du, idazle surrealista; ahizpa bikiarengandik hartu zuen abizena, Jo Vargas pintorea bera; eta anaia ere historialaria du, Stéphane Audoin-Rouzeau, Lehen Mundu Gerran espezialista. Ezkerreko militante eta alderdi ekologisten alde atera izan da publikoki. Ibilbide literarioari dagokionez, 1986an argitaratu zuen lehen polizia eleberria, *Les Jeux de l'Amour et de la Mort*, Cognac Jaialdian saritu zutena. Ordutik, hamarnaka eleberri beltz argitaratu ditu, Jean-Baptiste Adamsberg komisarioaren seriea izanik ezagunena, eta komikietarako gidoiak ere egin ditu.

Baztango Udala

ILBELTZA
EUSKAL NOBELA BELTZAREN ASTEA

Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko VI. (H)ilbeltza bekaren irabazlea